

HIESAREN 20 URTEETAKO KRONOLOGIA:

- **1981:** EEBBetako Gaixotasunen Kontrolerako Zentroak Los Angelesko (Kalifornia) bost gayrengan aurkitutako *Pneumocytis carinii* izeneko pneumonia mota ezezagun baten berri eman zuen lehenengo aldiz.
- **1982:** Aurrenekoz definitua geratu zen Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea (hiesa). Kutsatzeko hiru moduak zehaztuko zituzten urte horretan: odol transfusioa, koitoa eta amaren eta umearen arteko transmisioa.
- **1983:** Giza Inmuno-Eskasiaren Birusa identifikatu zuten hiesaren eragile gisara. Afrikan, heterosexualek epidemia bat atzeman zuten.
- **1984:** Lehen aldiz pertsona bat hil zen Euskal Herrian hiesagatik, Donostiako 27 urteko mutil bat.
- **1985:** Epidemia erraz hedatzen zela nabarmendu zen. Munduko lurralde guztietan gutxienez GIB kasuren baten berri eman zuten. EEBBetako Elikadura eta Sendagaien Administrazioak hiesaren antigorputzen lehen testa onartu zuen. Test hori berehala erabili zuten nazio osoko transfusioetan zerabilten odola aztertzeko. Hiesa atzemateko lehen analisiak egin ziren Euskal Herrian.
- **1986:** C. Everett Koop EEBBetako Osasun ministroak, hiesaren gaineko txosten batean, eskatu zuen osasun publikoan erabakiak hartzeko eta sexu heziketa hobetzeko.
- **1987:** Hiesaren aurkako lehen erantzuna antolatu zuten

- Afrikan, Ugandan. Hiesaren inguruko Zerbitzuen Antolakuntzen Nazioarteko Kontseilua eta GIBarekin Bizi diren Lagunen Munduko Sarea sortu ziren. Otsailean, OMEK, Osasunerako Munduko Erakundeak, hiesaren inguruko programa berezia ezarri zuen. AZT Azitodimidinaren erabilera onartu zuten, gaitzaren aurkako lehen terapia.
- **1988:** Aurrenekoz, mundu osoko Osasun ministroak Londresen bildu ziren izurritearen arazoari aurre egiteko.
 - **1989:** Hiesaren aurkako *kit*-a banatu zuten Osakidetzak eta EAEko Farmazeutiko Elkarteak, hiesaren prebentzioarako egindako kanpaina.
 - **1991:** Osasunerako Mundu Erakundearen datuen arabera, 10 milioi pertsona zeuden infektatuta GIB birusarekin.
 - **1992:** Hiesari aurre egiteko terapia konbinatuaren gaineko lehen txostenaren berri izan zen.
 - **1994:** Amaren eta haurraren arteko transmisioa murrizteko lehen plan terapeutikoa jarri zuten martxan zientzialariek.
 - **1995:** Nork bere aldetik lan eginez, George Shawk, Alabamako Unibertsitatekoak, eta David Ho doktoreak ondorioztatu zuten, ordura arte uste zenaz bestera, GIB birusa ez dela lokartzen infekzioaren lehen unetik. Estatu Batuetako Elikaduraren eta Sendagaien Administrazioak saquinavir onartu zuen, lehen proteasa inhibitzailea.

- **1996:** Vancouverren egindako hiesaren aurkako 11. Bil-tzarrean, Kanadan, berrikitan infektatu eta karga birala ia hutseraino jaitsita zeukaten gaixoen gainean egindako ikerketaren txostenak bide eman zuen pentsatzeko bada-goela birusari hasieratik aurre egiteko modua.
- **1997:** Brasil da osasun sistema publikoaren bitartez terapia antirretrovirikoa errazten duen garapen bidean den herrialdea.
- **1998:** Amagandik haurraren gaineko transmisioa galarazteko lehen tratamendu laburra aurkeztu zuten.
- **1999:** Garapen bidean den herrialde baterako GIBaren kontrako balizko txerto baten lehen eraginkortasun saioa hasi zuten Tailandian.
- **2000:** GIB / HIESaren arazoa aurreneko aldiz jorratu zuen Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun kontseiluak, eta gaixotasuna bakearentzat mehatxu bat dela dioen ebazpen bat onartu zuen.
- **2001:** Kofi Annan NBEko idazkari nagusiak ekintzarako dei bat egin du, eta hiesarentzako munduko fondo bat sortzea proposatu du. Proposamenaren arabera, fondo hori hainbat herrialdek, enpresak eta erakunde osatuko dute. Enpresa farmazeutiko handienetako batzuk sendagaien prezioak jaitea eta herrialde txiroenetara dohainik bidaltzea hitzartzen dute.

Baina, luzera begira, pandemiak Afrikan izaten ari den baino eragin handiagoa izango du Asian, bertan bizi baita gaur egun munduko biztanleria osoaren %60a. Kaliforniako (EEBB) Unibertsitateko medikuntza ikaslea eta Worldwatch Instituteko kidea da Ann Hwang, eta hark argitaratu berri duen txosten batean Indian nahiz Txinan, munduko bi herrialde populatuenetan, GIB birusaz kutsatuak azken urteotan ikaragarri ugaltu direla azaltzen du. Lehenak bilioi bat biztanle du, eta bigarrenak, 1,3 bilioi; bien artean mundu osoko populazioaren herena baino gehixeago dira, eta Asiako %70a

inguru. Hala eta guztiz ere, Hwangek egindako lanaren arabera, oraindik ez dute pairatu Afrikako herrialde ugari jasan duten kutsadura maila, eta oraindik aukerak izan badituzte epidemia kontrolatu eta baita garaitzeko ere. Zer egingo dute aukera horiekin Asiako bi herrialde erraldoi horiek? Garaiotako gizadiaren aferarik garrantzitsuenetako izan liteke hori.

Lau milioi kutsatu Indian

Azken kalkuluen arabera, ia 4 milioi pertsona daude Indian GIB birusaz kutsaturik –mundu osoan Hegoafrikak bakarrik du kopuru handiagoa–.

Indiak duen populazio handia dela kausa, herrialde horrek duen kutsadura portzentaia oso txikia da –% 0,4, EEBBetako portzentaia oso hurbil (%0,3)–. Portzentaia txiki horrek Indiako lurraldeen arteko desberdintasun ikaragarria ezkutatu baino ez du egiten, ordea. Indiako estatu askotan, batez ere ipar-ekialdeko muturrean –Myanmarrekin muga egiten dutenetan– eta hegoaldeko beste eremu ugarietan kutsadura %2 izateraino heldu da helduen artean. Dezente zabaldu-tako epidemiatzat har daiteke, horrenbestez.

Lurraldeen arteko kutsadura portzentaien diferentziez gain, bada bestelako ezberdintasunik; kutsatzeko moduei dagozkienak, hain zuzen ere. India hegoaldean, hiesa sexu harremanen bidez kutsatzen da, eta bereziki aipagarria da prostituta asko dardela kutsatuta. Sexua negozio handia da Indian; urteko 8,7 bilioi dolarreko irabaziak sortzen dira prostituzioaren bitartez. Mendebaldeko kostaldeko hiririk handiena Mumbai da, zeinak dagoeneko New Yorken biztanle kopuru bikoitza duen, eta prostituta kopurua 20 aldiz handiagoa da. Bada, 1997rako prostituta horien %70 seropositiboak ziren. Indiako ipar-ekialdean, aldiz, epidemiak bestelako izaera du arras. Lurralde horrek drogaren kultura zabala du. Han epidemia zainetik hartzen diren drogen bitartez hedatu da, batik bat langabezian diren gazteen eta ikasleen artean. Ipar-ekialdean dagoen Manipur estatuan, zainetatik drogatzen zirenen eta haien bikotekideen artean GIB birusaz kutsaturik ez zegoen apenas; lau


urte geroago, aldiz, %70 ziren kutsatuak. Aipatzekoa da, halaber, bai ipar-ekialdean eta baita hegoaldean ere GIB birusa gizartearen gorago dauden mailalara hedatzen ari dela.

Beharbada, milioi bat Txinan


Txinan kutsatuta benetan zenbat jende dagoen jakitea lan nekezagoa da. Azken estadistikek diote milioi erdi eta milioi baten artean direla. Populazioa kontuan izanik, kopuru ñimiñoa da, baina, dagoeneko, lurralde guztietan atzeman da kasuren bat, eta gero eta gehiago zabaltzen ari dela dirudi. Indian bezalatsu, kutsatzeko arrazoiak nabarmen aldatzen dira lurralde batzuetatik besteetara. Txinako hegoaldean aurki liteke GIB birusaren kokagune nagusia. Yunnan izeneko probintzian –Laos eta Myanmarrekin mugan– Txinako kasuen %90 daude. Ingurune hartan dago Txinan zainetik drogatzen direnen kopuru handiena. Txinako beste eremu askotan, erdialdeko probintzietako landa guneeetan batez ere, kutsatzeko modu nagusia bestelakoa da guztiz. Lurralde horietan oso ohikoa izaten da jende txiroaren artean nork bere odola saltzea, diru gehigarritxo bat lortzeko. Horrek GIB birusa hartzeko arrisku handian jartzen ditu, baina sarritan ez dira jabetzen horretaz. Bestalde, Txinako hiri nagusietan, batez ere hego-ekialdeko kostaldeko eremu garatuenetan, ohikoena sexu harremanen bidez kutsatzea da, azken bi hamarkadetan sexu negozioa eta prostituzioa asko ugaltu baitira ingurune horietan.

Bai Indian eta baita Txinan ere, beste leku gehienetan bezalatsu, prostitutek, homosexualek eta drogazaleek jasaten dituzte mespretxu, irain eta zigor legalak nagusiki, eta horietatik beraiek dira hiesaren aurkako edozein programa serioren lehentasun behinenak, bai arrazoi praktikoengatik bai humanitarioengatik.

Hiesaren zabalkundea 2000 urtean



Kasu gehien dituzten herrialdeak



Indiak eta Txinak oraindik ez dute pairatu Afrikako herrialde ugariak jasan duten kutsadura maila